

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, gure xede-publikoa zehaztea garrantzitsua da. Batik bat, ikasleei zein irakasleei bideratuta dago, haien beharretara egokituta dagoelako. Horren ondorioz, ikasketak hobetzea dugu helburu, hau da, ikasteko metodo berri bat izango litzateke, non erraztasun ugari ekarriko lituzkeen bai irakasleentzat, bai ikasleentzat. Izan ere, proiektua aurrera doan heinean eta erantzun ona izaten badu, gizarteko beste sektore batzuetara bideratzea gustatuko litzaiuke, haientzat ere lagungarria izan daitekeelako. Hala nola, jatetxeei, bulegoei, supermerkatuei... merkatua zabaldu eta pertsona indibidualetara iritsi arte.

Informazio hau kontuan hartuta, lehenik gure proiektua gobernuari saldu beharko genioke(berak erosten baitu ikastetxe publikoetarako materialak), haiek erabakiko bait dute bideragarria den edo ez gure proiektua martxan jartzea. Baiezkoa izanez gero, lehenago esandakoa gertatuko litzateke, hau da, ikastoletara saltzea.

Guzti hau aurrera eramateko, biztanleriaren betebeharrak aztertu beharko genituzke, gure proiektua betebeharrak horietan oinarritzeko. Horregatik haien kezkek, larritasunak, zailtasunak, erraztasunak, etab. aztertu behar dira. Gainera, hasieran zenbait betebeharrak ase beharko ditugu, konkretuki ikasle eta irakasleenak, baina ondoren beste ikerketa bat egin beharko dugu, beste sektore bati bideratuta egongo zelako, eta kezkek desberdinak izango zirelako (urrats hau produktua gehiago garatu ondoren egingo genuke). Gobernuak ezezkoa emango balu ikastetxe pribatuetara joko genuke zuzenki nahiz eta gure "PLAN A" hori ez izan. Izan ere, mota guztietako irakasle eta ikasleentara jo nahi dugu, guztiengana iristea delako gure helburua. Horregatik, gure ustez, balio handiko produktu bat izango denez, hasiera batean zerbaitek garestia izango litzateke. Baina bultzada bat emanez gero, guztientzat eskuragarri izatea lortzea posible dela iruditzen zaigu.

Laburbilduz, gure bezeroen ezaugarriak eta beharrak honako hauek izango lirateke: DBH eta batxilergoko ikasleei zuzenduta dagoenez, ikastea erraztuko luke, zenbaitetan aipatua izango den bezala hezkuntza era dinamikoago batean eskaintzen duelako. Gainera, liburuak ez ahaztea saihestuko luke eta apunteak egiterako garaian, erraztasunak ekarriko lituzke. Bai apunteak egin eta gordetzeko erraztasunarengatik, bakoitzak bere nahiera ( edo arkatzarekin edo bertan programatutako teklatuarekin) baita klasea jarraitzeko erraztasunarengatik. Horri gehituz, bizkarreko mina ez izatea lortuko genuke, motxilak beharrezkoak izango ez liratekeelako. Irakasleek ari garela, klase dinamikoagoak emateko ahalmena izango lukete eta ikasleak ez aspertzea lortuko lukete beraiek erosoago egonez eta askeagoak izanik klaseak beste modu batera eramateko. Horretarako, bideoak, argazkiak, dokumentuak, aurkezpenak, joku dinamikoak, etab. izango lituzke

eskuragarri. Gainera, jarrera ekologista hartzen duen produktua da orrien erabileraren murrizketa ekartzen baitu.

Horrela, gure bezero nagusia Eusko Jaurlaritza izango litzateke . Haiek, gure mahiak bideragarriak diren edo ez erabakiko lukete . Proiektua onartuko gero ikastoletara banatuko lirateke eta horrela, gaur egun dugun hezkuntza mailak, gora egingo luke, lehenago esandako ezaugarriengatik (adiago egotea, dinamikoagoak izatea...).. Gainera, ikasleak teknologiarekin bat egitea lortuko genuke, eta horrek onura ugari ekartzen ditu, gaur egun eta etorkizunean, dena teknologiaren inguruan dabilelako. Aurretik esan bezala, eusko jaurlaritzak proiektuak.

Guzti hau kontuan izanda, eta erantzukizun ona izanez gero, beste arlo batzuetara egokituko genuke (lehenago aipatu dugun bezala). Beste bezero nagusi bat, edozein sektoreko enpresak izango lirateke. Gehien sakondu nahi duguna jatetxeetako mahai digitala da ikastoletakoena eta gero. Honek erraztasun asko ekarriko lituzke bai bezero bai langileentzat. Aukera izango lukete zein mahaietan eser daitezken bezeroak jakiteko eta ondoren hauek haien mahaietatik eskaria egiteko. Aukera gehiago ikusten ditugu, baina lehen aipatu dugun bezala, proiektu hau bigarren planokoa da eta aurrerago sakontzea pentsatzen dugu.